


“ALTZERREKA” JAUREGITIK “ALKARTU”
GASTRONOMIA ETA OLGETA-ELKARTERA
(XVII. mendea – gaur egun)



IGOR BASTERRETXEAK KEREXETA

Azala: Altzerreka jauregiaren armarria.

© Igor Basterretxea Kerexeta.

Argazkiak: Eneko Gallastegi.

Lege-gordailua:

Elkartekide guztiei, bereziki
Carlos Palacios jaunari.

AURKIBIDEA

1. HITZAURREA.

Elorrio XVII. mendearen amaieran: merkatarien mundua.

2. ALTZERREKA FAMILIA ETA JAUREGIAREN ERAIKUNTZA.

Miotako Aitoren semeak.

Elorrio zabalago: Suso aldiria.

Joseph de Alzerreka eta bere lobak.

3. BITARTEKO AROA.

Mende ilun bat. Bainu-etxeak eta turismoa.

Ariñotarrak eta Gerra Zibila.

4. “ALKARTU” ELKARTEA.

Elkartea eratu eta etxea erosi.

Azken berritze-lanak.

5. BIBLIOGRAFIA ETA DOKUMENTU-ITURRIAK.

1. HITZAURREA

Lan labur honen helburua Altzerreka jauregiaren historia jakinaraztea da, zehaztasun handirik gabe bada ere. Jauregia Altzerrekatarrek eraiki zuten XVII. mendearen amaieran, gaur egun “Alkartu” gastronomia-elkartearen egoitza jauregian dago. Elorrion elkarte horretaz gain badaude antzeko ezaugarri dituzten elkarteak: “Pitxar”, “Lagun-toki” eta “Buzkantz” herri barruan; eta “Lagun-Arte”, Gazeta auzoan¹.

1.1. Elorrio XVII. mendearen amaieran: merkatarien mundua

Altzerreka jauregiak gain, badaude Elorrion beste hogeit bat jauregi, batzuk XVI. mendearen amaierakoak dira, beste batzuk XVIII. mendearen hasierakoak, baina gehienak XVII. mendekoak dira, zehazki esanda mendearen bigarren erdikoak (orduantxe izan zen, ekonomia aldetik, Elorrioko historiaren sasoirik goienena). Jauregiak orduko merkataritzako ondarea dira, izan ere, une hartako gizonek ondo jakin zuten faktoreei etekina ateratzen: Elorrioren leku pribilegiatua; garai hartan Sevilla eta Amerika arteko burdin merkataritza geraldian zegoen; eta jaiotzez Aitoren seme² izateak ekartzen zituen abantailak.

Hori dela-eta, bada sasoia bakoitzari berea emateko, eta elorriotar jauregiak nobleziarekin lotzen duen teoria, eta, hiribildua jaunekin edo aristokraziarekin lotzen duena alde batera utzi edo ahazteko. Izan ere, Elorrioko historia ez zen inondik inora horrelakoa izan. Eraikin horien benetako egileak merkataria eta *avant la lettre* burgesak ziren eta, arraroagoa dena, baserri jatorrikoak. Haietako asko auzoetako baserrietan bizi ziren XVI. mendean jaitsi eta kaletar bihurtu arte. Oraingo jabeen artean batzuek noblezia-tituluak dituzte, eta ia denek, gutxi batzuek izan ezik, XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran jauregien ondorengoei erosi zizkien. Jauregien ondorengo arbasoak XVI, XVII eta XVIII. mendeko merkataria izan ziren. Gaur egungo jabeak boom turistikoarekin etorri, bainu-etxeak ezagutu eta jauregiak erosi zituzten.

Izan ere, XVII. mendean Elorrion familia aurre-burgesen sare bat zegoen, denek, gehiago edo gutxiago, burdin merkataritzarekin loturak zituzten. Familien artean ere loturak zituzten, hitzartutako ezkontzez gain, elkarrekin konpainiak eratu zituzten Sevillan, Amerikako bidean. Horri esker, Elorrio XVII. mendearen amaieran finantza-hiribildu bezala nabarmendu zen,

¹ Lehen “Andra Mari” izena zuen.

² S. de Pagadigorria, *Matrícula y padrón de los caballeros hijosdalgo de esta muy noble y leal villa de Elorrio (1575-1831)*, Bilbo, 1965. “*Vizcaya y Guipúzcoa estaban considerados como solar conocido de notorios hijosdalgo. Todos los originarios de ambas provincias que descendieron de padres y abuelos de la misma región, y de una casa determinada, por modesta que fuese, eran tenidos por hijosdalgo, sin que fuera necesario ninguna otra prueba*” (“Bizkaia eta Gipuzkoa ezagunak ziren Aitoren seme ospetsuak izategatik. Denak jatorriz horkoak ziren, lurralde horietako aitonen eta aiten ondorengoak ziren, eta etxe jakinekoak, xumea bazen ere, eta denak Aitoren semetat hartzen zituzten, bestelako frogaren beharrik gabe”) (55. or.). “*La hidalguía es nobleza que viene a los hombres por linaje, se le denominaba también nobleza —de sangre— antigua e inmemorial, pero no significaba título nobiliario*” (“Gizonei leinuak Aitoren seme izatea ematen zien, garai bateko eta antzina-antzinako —eta odoleko— nobleziakoak deitzen zien, baina horrek ez zuen esan nahi noblezia-titulua zenik”) (51. or.).

Bizkaiko hegoekialde honetako (Durangaldea) eta Gipuzkoako hegomendebaldeko (Deba Garaia) burdin merkataritza indartsuan.

2. ALTZERREKA FAMILIA ETA JAUREGIAREN ERAIKUNTZA

2.1. Miotako Aitoren semeak

Altzerreka familiaren jatorriko oinetxea Miota auzoan zegoen, XVI. mendean behintzat. Gaur egun dagoen lekuan zegoen, baina, segur aski, gaur egungo etxea ez du itxura eta neurri aldetik zerikusi handirik lehengo etxearekin. Askoz ere geroago, XVII. mendearen amaiera aldera, Altzerreka familiak, eta bereziki Joseph de Alzerrekak, Sevillan burdin merkataritzako konpainia batzuk zituenak, jauregia altxatu zuen Suso aldirian (gaur egun Berrio-Otxoa, 27). Seguru asko, aurreko familia-etxearen zimenduen gainean altxatu zuen, aurrekoa XVI. mendean kaletar arbaso batek eraiki zuen.

[1. ARGAZKIA]

Baina goazen Aitoren seme haien oinetxea ezagutzera. Jaime de Kerexetak “Linajes y casas solariegas de Elorrio” liburuan dioen bezala, Miotako etxeak sarrera nagusia hegoalderantz begira du, gaineko egurrak zabaleran 6,23 metro ditu, eta alboko horma bietan silarri bana ditu. Aurreko horma nabarmena da, 21,83 metroko distantzia du, eta, aipagarria da, bereziki, teiltatu-hegaleko habe nagusia, bertan idatzita baitago leinu honekin lotuta dagoen lehen berria: “Antonio de Alzarreca. Año MD”³. Beraz, pentsatu beharra dugu, Antonio hori ez bazen ere 1500 urte aldera lehengo etxea eraikitzeko agindua eman zuena, bera izan zen urte horretan berritze-lan handiak egin zituenak. Orduan oso ohikoa zen moduan, leku agerian izena ikusgai utzi nahi izan zuen.

Bestalde, etxe horrek beste etxe gehigarri bat zuen aurrean. Bigarren etxe horren aurrealdea Iparrera zegoen. Tamalez, 1978an etxea bota zuten. Etxe hori 1745eko su-erroldan bazegoen ere, antza, oso aukera gutxi ditu etxebizitza izateko.

Bailara, atzean Anboto eta Udalaiz mendiak dituela, oso inguru ederra da. Beste etxe bi ere badaude ikusgarriak direnak: “Larramendia”⁴ eta, atzerago, “Estakasolo”, azken hau lauki-formakoa da eta armarria du, jauregitxo baten antza du, eta seguru asko jatorriko familia-etxe edo dorretxe baten gainean eraikita dago. Etxe hori Francisco de Estakasolo y Murua Litzentziatuak altxatu zuen, Antonia de Otalora andrearekin ezkondua zegoena. Horrek esan nahi du familia-lotura zuzena zuela Elorrioko merkataria eta negozio-gizon handi batzuekin: Otaloratarrak. Beraz, ez da harritzekoa Francisco de Estakasoloren bi semeek, Gaspar eta Juan de Estakasolo y Otalorak, San Jakueren Ordenaren Zaldunak izendatzea lortu izana 1692an.

³ J. de Kerexeta, *Linajes y casas solariegas de Elorrio*. Bilbo, 1987. (32. or.). Seguraski datak jarraituko luke.

⁴ J. de Kerexeta, *Linajes y casas solariegas de Elorrio*. Bilbo, 1987. “Algunos la denominan también ‘Aldekoa’ (“Batzuek Aldekoa ere deitzen diote”) (123. or.).

Baina gatozen interesatzen zaigun ildora. Altzerreka etxearen ekialdean Elorriotik Berrizerako bidean, erreka txikitxo bat da, baliteke garai batean haltzez inguratutik egon izana. Leinuaren abizena, zalantza barik, horren eratorria da, “haltz” eta “erreka”, hots, (h)Altzerreka⁵.

[3. ARGAZKIA]

Altzerreka familiaren jatorriaren haritik, aipatu dugun idatzia egin zenetik hurrengo dokumentu idatzian (bataio-liburuan, zehatz-mehatz) agertzen den izena hauxe da: Joan de Alzerreka, 1542 urtean jaioa. Baina denbora atzerantz eginez, Gonzalo de Otorra y Guissasak, durangar historialariak, “Micrología geográfica de la Merindad de Durango” idatzi zuen 1634an eta hauxe zioen: “*el señor de la casa de Alcerreca acompañó al príncipe don Sancho de Esteguiz, último señor de la merindad de Durango, en la batalla de Padura o Arrigorriaga*” (“*Altzerreka etxeko jaunak Sancho de Esteguiz printzeari, Durangaldeko merindadeko azken jaunari, Padurako edo Arrigorriagako batailara lagundu zion*”), hori, antza denez, 888 urte inguruan gertatu zen. Dena den, kasu gutxi, edo bate ere, egin ahal zaie horrelako informazioei, XVII. mendean oso ugariak ziren eta familiako baten batek kronistari ordaindu ohi zion leinuaren historia eta ospea handitu nahian. Horrelako informazioak elezaharren atalak dira letra larriko Historiarena baino.

2.2. Elorrio zabalago: Suso aldiria

1480ko ekainaren 27an bandoen arteko borrokek sortutako suteak hiribildua erre zuen. 1468an Marzana eta Ibarra familien arteko borroka Elorrioren ere gertatu zen. XV. mendean amaieran, norgehiagokak amaitu ziren eta ziurtasun-eza amaitu zen. XVI. mendean hasi zen lasaitasun, baretasun eta bake aroa, aurreko bi mendeetan ezagutu ez zen aroa.

Egoera berriak auzotarrak bultzatu zituen hiribildua inguratzen zuen harresitik kanpo etxeak altxatzeko, arriskurik ez baitzegoen, edo, behintzat, arriskua txikiagoa zen. Kanpoan bizitzeko baldintzak hobekien ere baziren (lekua handiagoa, ubidea gertu zen, eliza eta plaza ere hurbil ziren, eta ortuak ere zabalagoak ziren). Urte horietan aldiriak sortu ziren, lehenak Plaza eta “Suso” (Berrio-Otxoa) izan ziren, eta gero hauexek izan ziren: “San Fausto” (gaur egun, San Pío X), “San Roque” (orain, Elizburu kalea), “Barca” (Urarka), “Ganondo” (Buzkantz), “Saldosin” (San Juan) eta Ortuburu auzoa.

Dona Gilen iritziz, momentu hartan ere hirigintzan lehen baino garapen handiagoa gertatu zen, bizilekua erosoagoa egitea zen orduko pentsamoldea eta bizimoduaren beharrak aurreko garaietako baino handiagoak ziren. Etxeetako oinak zabalagoak egin zituzten, bizi-baldintza

⁵ J. de Kerexeta, *Linajes y casas solariegas de Elorrio*. Bilbo, 1987. (32. or.).

hobeak nahi zituzten, eta azken hori ez zegoen beti egiterik harresiaren barruan, hirigintza Erdi Arokoa zen-eta⁶.

Plaza aldiria altxatzen hasi ondoren, “Suso” aldiria eraiki zen. Elorriotik Urkizuaran eta Iguria auzoetarako, eta handik Arrasatera doan bidearen inguruan altxatu zen. Hasieran aldiri horrek, batetik, biztanleen gune berria izan zen; eta, bestetik, kanpokoekin komunikatzeko bide nagusia ere izan zen. Hasieran aldiri horrek hurrengo aldiriak ordenatzeko balio zuen, batez ere, eliza ondoan zuelako. 1510eko otsailaren 1eko data duen dokumentu batean, leku horren lehengo aipamena dugu eta Suso aldiria zehazki aipatzen da: “*En el robledal de Urquizu que es allende del rebal de suso de la villa de Helorrio estando sobre un mojón oy en día puesto...*”⁷ (“Elorrio hiribilduko Urkizuko hariztian, Suso aldiria baino harago dena, gaur egun mugarri baten gainean dago...” (7. oharra)). Inguruko auzoetako jende asko etengabe etorri zen eta aldiriak sortu ziren, euren jatorriko etxeak eta oinetxeak utzi eta aldirietan altxatutako etxeetara joan ziren. Familia-etxe horiek XVI. mendean eraiki zituzten, horietako asko XVII. mendean burdin merkataritzari eta garapen ekonomikoari esker, bi horiek hiribildua aldatu zituzten eta etxeak jauregi bihurtu zituzten. Gure hizpidea den Altzerreka leinuak Elorrioko hainbat familiek izan zuten prozesu ekonomiko eta sozial berdina izan zuen.

Altzerreka jauregiaren, aurkitu dugun, lehengo azalpena XIX. mende hasierakoa da, XVII. mendearen amaieran beste familia-etxe baten gainean eraiki eta XVI. mendean sortutako aldirian egon arren. Etxea honela azaldu zuten: “*casa urbana o palacio, señalada con el número 10 antiguo*⁸, *sita en la calle de Suso de la villa de Elorrio, comprende sesenta y dos estados equivalentes a dos áreas cincuenta y nueve centiáreas de planta solar, se compone de piso de bajo, principal y desván con sus correspondientes divisiones y habitaciones. Su huerta contigua, comprende ciento treinta y seis estados equivalentes a cinco áreas dieciséis centiáreas, sumando una totalidad, entre casa y huerta, de doscientos cinco estados equivalentes a siete áreas y setenta y cinco centiáreas*”⁹ (“hiri-etxea edo jauregia, 10 zenbaki zaharra duena (8. oharra) Elorrioko Suso kalean dagoena, oinetxeak hirurogeita bi estatu dituena, hots, berrogeita hemeretzi zentiaarea dituena. Behe pisua, pisu nagusia, ganbara, eta dagozkien zatiketak eta gelak ditu. Ondoan duen ortuak ehun eta hogeita hamasei estatu ditu, hots, bost area eta hamasei zentiaarea. Guztira, etxeak eta ortuak, berrehun eta bost estatu dira, hots, zazpi area eta hirurogeita bost zentiaarea” (9. oharra)).

2.3. Joseph de Alzerreka eta bere lobak

⁶ D. Gil, *Elorrio, urbanismo medieval de la villa*. Bilbo, 1997 (189. or.).

⁷ B.F.A. Elorrioko udala. 234/2910.

⁸ Geroago 19 eta 21 zenbakiak izan zituen, eta orain 27a du.

⁹ Durangoko jabetza-erregistroa. Agiritegiaren 239 liburukia, Elorrioko 31 liburua, 16 orria, 311 finka.

Alzerreka jauregia gaur egun “Alkartu” gastronomia-elkartearen egoitza da. Elorriok, ekonomia aldetik, XVII. mendean, batez ere, mendearen amaieran, izan zuen goren aroan sortu zen jauregia. Anaien belaunaldi batek agindu zuen etxea altxatzea, eurek burdinak eta Sevillak lotzen zituzten.

Joseph de Alzerreka, seguru asko, Domingo de Alzerreka eta Mariana de Zaldibar andrearen semea zen; hortaz, Juan, Antonio eta Franciscoren anaia zen¹⁰. Bera izan zen dirutza bila Sevillako bidea hartu zuen lehena. Han, Sevillan, beste elorriotar batzuekin, behintzat guk dakigunez, merkataritzan jarduteko burdin konpainiak sortu zituen, bata 1686an Domingo de Lariz eta Simon de Zearsolorekin, eta 1692an bi sortu zituen: bata, Diego de Urquizu, Domingo de Lariz eta Sebastian de Araunarekin; eta, bestea, Francisco Antonio de Otorarekin. Oro har, Sevillan bera izan zen konpainien administratzailea; eta, beraz, Ameriketarako burdin eta metal-manufakturen kargatzailea ere bera izan zen. Adibidez, 1690 eta 1700 arteko hamarkadan, jakin badakigu lau flota bidali zituena Nueva España erregeorderrira eta bat Tierra Firme-arenera, guztira 5.252 burdin kate, 1.577 tiradera burdineriarekin, 31 tiradera iltzeteriarekin, 3.719 golde-reja, 1.297 aitzur, 1.297 pala, 300 mailu, 302 biburdin txiki eta 40 burdin zumitz.

Joseph lehen sozietatea sortu zuenean, 1692an, Diego, Domingo eta Sebastianekin, Sevillan bizi zen bakarra bera zen. Enpresa lau urterako sortu zen, 362.683 erreal kuarto izan zituzten hasteko, Joseph izan zen dirua ipini zuen bakarra, 16.000 hain zuzen, beste hirurek aurretik izan zuten konpainia baten likidazio-mozkinak jarri zituzten. Joseph de Alzerrekak kapital gutxien ipini zuen, baina arrisku handiagoa hartu zuen eta lan ere gehiago egin zuen (bera da adibide argiena industria-bazkidea baitzen, besteak, berriz, jardunean ez zeuden bazkideak baitziren).

[5. ARGAZKIA]

Geroago, Juan eta Esteban de Alzerreka ageri ziren, Antonio de Alzerreka eta Mariana de Mendiola andrearen¹¹ semeak eta beraz baliteke aipatutako Josephen lobak ere izatea. Juan de Alzerreka 1669ko abuztuaren 9an jaio zen. Antza 16 urterekin lanean hasia zen “*atavaquero*”¹² (tabako-saltzaile) lanetan Miotako eta Ospitaleko tokietan. Gero osabaren bizibidea hartzea erabaki zuen eta 1700 urtean Valladolideko Real Chancillerian Aitoren semea zela frogatu nahian ibili zen Sevillara bizitzera joaterik izateko. Baina gero ez zen han gelditu, agi denez, joan-etorri ugari egin zuen bere negozioak hobeto kontrolatzeko. Izan ere, 1704an hiribilduan egin zen erroldari esker badakigu Miotako etxean bizi zena¹³. Jauregian armarrria ipini zuen, eta, ziur asko, errentan izan zuen.

¹⁰ E.D.A. Elorrio. Bataioak.

¹¹ Gregorio de Otoraren inbentarioak dioenez, 1690eko urtarilaren 17an idatzitakoa, senar-emazte hau Elorrioko jauregian bizi zen, Joseph de Alzerrekak Sevillan jarraitzen zuen bitartean.

¹² B.F.A. Elorrioko udala. 6/76.

¹³ Hala ere, oraindik bizirik balego, bere osaba homonimoa izan liteke.

Azkenik, Esteban de Alzerreka Elorrio hiribilduko erregidore izatera heldu zen 1709an. Horrek argi erakusten du leinuak hartu zuen garrantzia, horrenbeste denbora eta neke igaro ondoren.

3. BITARTEKO AROA

3.1. Mende iluna. Bainu-etxeak eta turismoa

XVIII. mende osoan eta XIX. mendearen lehen laurdenean jakin ez dakigu asko jauregiari buruz, ezta bere biztanleei ere¹⁴. Baina gogoan izanda XVIII. mendearen hasieran errentan izan zutela eta XIX. mendearen bigarren erdira arte jauregia behin eta berriz saldu zutela, logikoa da pentsatzea urte horietan ere hainbat maizter, edota jabe berriaren bat, izango zirela.

Alderantziz, argi dago jauregian hurrengo XIX. mendean (bigarren zatian) eta XX. mendearen hasieran (gerra zibilera arte) zer gertatu zen ulertzeko, jakin beharra dugula ia 100 urteko aro horretan zer gertatu zen Elorrion, turismo-gune garrantzitsua baitzen.

Lehenago, 1840 eta 1907 inguru bitartean, bainu-etxe eder eta ospetsuek pertsona ugari erakartzen zuten, normala zenez, gizartearen goiko klaseko jendea etortzen zen Madril eta Bilbotik. Elorrio aterpe paregabe bihurtu zen (gainera, Elorrion, Bizkaiko hiribildu gutxien artean, ez zen endemiarik izan)¹⁵, eta Bizkaiko, Euskal Herriko eta erresumako hainbat hiritatik (Burgostik, Madrildik, Santandertik,...) klase aberatsak etortzen ziren. Beste alde batetik, 1907 eta 1936 bitartean bainu-etxeak desagertu ziren, baina artean atseden-leku erakargarria zen hauei esker: kokalekua, lasaitasuna, paisaia, ondarea; eta garai bateko jauregi eta etxe ederrak, orduko klase aristokratikoak udako etxetzat nahi zituen.

Horrela, Lekerika Otsa jauregia Gonzalez bilbotar familiak erosi zuen, Esteibar Arauna jauregia Etxebarria familiak erosi zuen -zerrenda luzea da-, Altzerreka jauregia Ariño familiak erosi zion 1917ko abuztuan 12.000 pezetatan Jose de Arreguiri.

Baina, zer gertatu zen jauregiarekin XIX. mendearen hasieratik Ariñotarrek erosi arte? Egia esan, gauza asko gertatu ziren. Durangoko jabetza-erregistroan begiraturaz gero, badakigu XIX. mendearen hasieratik 1846ren martxora arte, Agustín de Sarrigoitia jauna jauregiaren jabea izan zena. Berak orduan Ignacio de Burgiñas Olalde e Izaguirre jaunari saldu zion. Ignacio de Burgiñas Olalde e Izaguirre jauna Elorrio hiribilduko elkartutako parrokiako Presbitero Benefizioduna zen. Urte batzuk geroago, 1868ko abenduan, Ignacio de Burgiñas jaunak arrebari, Melitona de Burgiñas andreari, saldu zion jauregia 3.000 dukatetan.

[7. ARGAZKIA]

XX. mendera heldu gara. 1905eko irailean, Melitona de Burgiñas andrea urte horretako apirilean zendu zen 90 urte zituela, ez zuen nahitaezko ondorengorik. 1902ko urtarrilaren 13an

¹⁴ Hau izan ezik: 1745ean jauregiak errentan jarraitzen zuen bitartean, Miotako baserrian Catalina de Burgiñas andrea, Juan de Alzerrekaren alarguna, bizi zela; eta 1796an, José Francisco de Alzerreka dugula, bai jauregiaren, bai Miotako baserriaren biztanle eta jabea. (1745eko eta 1796ko erroldak).

¹⁵ M. Sarrionandia Gurtubayen hitzetan, *Historia de los balnearios de Bizkaia*. Bilbo, 1989.

testamentuan Melitona de Burgiñas andreak adierazi zuen etxea eta ortua Ladislao de Etxegibel y Gangutia jaunari jaraunsletzat utzi ziola. Jaun horrek etxea hamabi urtean izan zuen, eta 1917ko ekainean saltzea erabaki zuen 15.000 pezetatan. Eroslea José de Arregui y Zabala arotza jauna izan zen, eta horrek (12.000 pezetatan erosi zuen) 3.000 pezeta gutxiagotan saldu zion Julián de Ariño y Salazar jaunari (Bilboko dentista bat), bi hilabete baino igaro ez zirenean, abuztuan. Honek zera adierazten digu: seguraski Arregi Ariñoren testafarroa izan zela.

3.2. Ariñotarrak eta Gerra Zibila

Ariñotarrak eta zehazki lehen jabea izan zena, Julián Ariño, oso abertzaleak ziren. Antza, garai hartako abertzaleen arteko solasaldiak ohikoak ziren jauregian. Horrexegatik oker uste izan da jauregian Batzokiren beharrak egiten zirela. Baina, Batzokia Berrio-Otxoa kalean zegoen, apur bat beherago, gaur egungo 11 zenbakian, zapata-dendaren gainean.

Gerra zibilak ere jauregian aztarnak utzi zituen, baina ez bakarrik aurrealdean dituen artilleriaren marketan, Lekerika Otsak dituen modukoak, handik hurbil bomba bat jausi zen-eta. Izan ere, gerra zibilean jauregia bahitu zuten. Julián de Ariñori bahitu zion Francoren erregimenak 1937ko otsailean. Bahitura mugatu gabeko denborarako izan zen, “*erantzukizunak*” edo arrazoi politikoak zirela medio. Julian jaunaren 16 finka ere bahituran barruan zeuden.

Zorionez, 1942ko otsailaren 13an, aipatutako bahitura bertan behera utzi zuten “*por haberse extinguido las responsabilidades políticas contraídas por don Julián Ariño de Salazar*”¹⁶ (“*Julian Ariño de Salazar jaunak hartutako erantzukizun politikoak iraungi direlako*” (16. oharra)). Handik bost urtera, 1947ko apirilaren 19an, Julián Ariño jaunak, bere emaztea Matilde Colau Careaga andrea hilda zegoen, testamentua egin zuenean bere ondasunak zatitu eta finka hori alabari, María Concepción Ariño Colau andreari, utzi zion. Dena den, adjudikazio hori ez zen legez ez eskrituren pean egin 1948ko maiatzera arte.

Ariñotarrekin jarraituz, 1966ko abendutik 1973ko ekainera arte, María Concepción Ariño andreak eta bere senarrak, Adolfo Quintana Lopategi jaun industrialariak, Bilboko Monte de Piedad Aurrezki Kutxan 750.000 pezetako mailegua hartu zuten eta jauregia hipoteka-ondasuntzat jarri zuten. Jauregiaren hipoteka-balioa 1.150.000 pezetatan ipini zuten.

¹⁶ Durangoko jabetza-erregistroa. Agiritegiko 239 liburukia, Elorrioren 31 liburua, 311 finka, 5. inskripzioa.

4. “ALKARTU” ELKARTEA

4.1. Elkartea eratu eta eraikina erosi

“Alkartu” gastronomia eta olgeta-elkartea 1979ko apirilaren 3an eratu zen¹⁷, behin-behineko egoitza Berrio-Otxoa kaleko 27 zenbakian egon zen. Bere 106 bazkide sortzaileak, lehen zuzendaritza-batzordearekin, hauexek izan ziren:

Zuzendaritza-batzordea (13): José Luis de Etxebarria, lehendakaria; Carlos Palacios, idazkaria; Valentin Altube, Pedro María Arieta Orbe, Miguel Blanco, Antonio García Serna, José Juan Esteban Irazola, Sebastián Landaburu, José Ramón Lazkano, Alfonso Ruiz, Lorenzo San Pedro, José María Zengotitabengoa eta Patxi Zubiaurre batzordekideak.

Gainerakoak (93): Alberto Altube, Jesús María Altube, Ramón Altuna, Gregorio Álvarez, Antonio Álvarez, Juan Manuel Amesti, Rafael Amesti, Javier Amiano, Manuel Arando, José María Aranzamendi, Isidoro Arbulu, Álvaro Arregui, María José Arregi, Jose Luis Arregi, Ignacio Arregi, Fernando Arriaga, Alfonso Arriaga, Isidoro Arrizabalaga, Domingo Arruabarrena, José María Askasibar, Félix Azkarraga, José Luis Azkonizaga, Herminio Barrientos, José Ramón Basauri, Juan José Bastarrika, Celestino Beneitez, Pedro María Berriozabal, Vicente Carrasco, Juan Manuel de la Mata, José María Etxebarria, Juan Carlos Ereñaga, Pablo Eriz, Juan Pedro Esnaola, Miguel Fernández, Tomás Fernández, Jesús Fernández, Félix Fernández, Jesús María Flores, Juan Flores, Miguel Ángel Gabiria, Jose Antonio Gallastegi, Antonio Garaizabal, Agustín García, José Antonio García, José Luis González, Imanol Gaztañaga, Jesús Guridi, Miguel Haro, Damián Ibáñez, Iñaki Idoate, Pedro Igartua, Jon Igarza, José Ignacio Irazabal, Valentín Irazola, José Irazola, José Izagirre, Juan Luis Jiménez, Antonio Kortabarria, Ignacio Kortabarria, Antón Kortazar, Juan Esteban Landaburu, Patxi Larrañaga, Valentín Lasarguren, Juan María Lersundi, José Antonio López, Marceliano Martín, Francisco Javier Moisen, Juan Luis Moisen, Manuel Moreno, Ángel Morales, Ángel Murua, Andrés Olaetxea, José María Ruano, Jesús María Ruiz, Félix Ruiz, Valentín Sáenz, Jesús María Sagastizabal, José Manuel Sagastizabal, Vicente Sagastizabal, José Miguel Ugarriza, Ángel Uriarte, Javier Urretxa, Roberto Unzueta, Juan Luis Usabel, Julián Zabala, Juan José Zengotitabengoa, Javier Zenitagoia, José María Zenitagoia, Miguel Zenitagoia, Joaquín Ziarsolo, Juan Zuazua eta José Antonio Zubiaga.

[9. ARGAZKIA]

¹⁷ Baina ofizialki ez da inauguratzen urte bereko urriaren 4arte, “Altzerreka” jauregia erosi eta konpondu eta gero.

“Alkartu” Elkartea Elorrioko emakumei irekitako lehenengoa izan zen, horiek hasieratik bazkideak izateko aukera izan baitute. Elkartearen zeregina oso argia da, estatuen 2. artikulua honela dio: *“Los fines de la sociedad son el procurar dar mayor realce a la cultura local, el recreo y esparcimiento de sus asociados y mantener el carácter típico y las costumbres gastronómicas de Elorrio, organizando platos típicos de la localidad que serán confeccionados por los propios asociados”* (“Elkartearen jomugak bertoko kultura indartzea, bazkideen jolasaldiaren eta aisialdiaren alde egitea, eta Elorrioko berezko izaerari eta gastronomia-ohiturei eustea bazkideek egingo dituzten herriko ohiko janaren bidez”). Bere historia laburrean zehar Elkartek aurreko artikulua ondo bete du, Elorrion egiten diren hainbat kirol-kultur ekintzetan parte hartzen: pintura eta mikologiari buruzko erakusketak, Elorrioko Ferixa Nausietako danborrada, Santa Ageda eguna, San Balendin Berrio-Otxoa ospakizuna, ... Beste aldetik, ekintzei dagokienez, 4. artikulua dio: *“el ámbito de actuación de la Sociedad quedará limitado al término municipal de la Muy noble y Muy Leal villa de Elorrio”*¹⁸ (“Elkartearen jardun-eremua Elorrio baino ez da izango” (18. oharra)).

Horrenbeste jende hartzeko eraikin egokiagoa faltan zuten eta, zorionez, eskaintza on bat aurkitu zuten: Altzerreka jauregia eta ortua, Berrio-Otxoa kaleko 19 zenbakian. Orduan jauregiak ekialdean Martín de Garaizabal jaunaren ondorengoen etxea eta ortua zituen, hegoaldean Berrio-Otxoa kalea zuen, iparraldean bere ortua zuen, eta mendebaldean Sortzez Garbiaren parrokiaren abatetxea zuen.

Hilabete haren 25ean batzarra egin zuten eta Carlos Palacios idazkariak idatziz jaso zuen Batzordeak ahalmena eman ziola Jose Luis Etxebarria jaunari, lehendakariari, Elkartearen ordezkari izateko Altzerreka etxearen salerosketaren eskritura publikoan. Handik egun bira, 1979ko apirilaren 27an, jauregia erosi eta eskriturak egin zituzten, 5 milioi pezeta ordainduta. Bilboko Adolfo Quintana Lopategi jauna eta María Concepción Ariño Colau andrea saltzaileak ziren eta horien semeak, Adolfo Quintana Ariño jauna eta Juan Manuel Quintana Ariño jauna, euren gurasoen ordezkari izan ziren.

4.2. Azken berritze-lanak

Eraikuntza haiena denetik ofizialki inauguratzen duten arte (1979ko apirilaren 27tik urriaren 4raino) elkartekideak, pare bat profesionadun izan ezik, hasten dira pertsonalki jauregiaren barnealdi guztia berritzen, hasiera batean beheko solairua moldatuz eta hiru zati hauetan bananduz: sarreran barra, sukaldea angeluzuzen formarekin, erdi-erdian, eta hau inguratzen duen jantoki luzeak, “L” formarekin.

[11. ARGAZKIA]

¹⁸ “Alkartu” gastronomia-elkartearen estatutuak.

Solairuaren zatiak, normala denez, hogeita hiru urtean aldatu izan dituzten arren, berritzelanean garrantzitsuenak 1990 hamarkadan egin zituzten: batetik, atzeko terraza estalkiduna egiteko (ordura arte ortuko zatia zena), leku atsegina da kanpoan bazkaltzeko eta afaltzeko, tximinia ederra du barbakoak egiteko eta txuletoi erreak eta gozoak jateko; bestetik, lehen solairukoak, han aisialdirako leku bat dago, mahaiak eta telebista ditu, eta batzarrak ere egiten dituzte, beste leku bat ere badago jantokia dena eta sukaldea, barra eta komunak ditu.

5. ITURRIAK

BIBLIOGRAFIA-ITURRIAK

- Gil, Dona: *Elorrio. Urbanismo medieval de la villa*. Bilbo, 1997.
- Kerexeta, Jaime de: *Linajes y casas solariegas de Elorrio*. Bilbo, 1987.
- Pagadigorria, Santos de: *Matricula y padrón de los caballeros hijosdalgo de esta muy noble y leal villa de Elorrio (1575-1831)*. Bilbo, 1965.
- Sarrionandia, Magdalena: *Historia de los balnearios de Bizkaia*. Bilbo, 1989.

DOKUMENTU-ITURRIAK


- Elizbarrutiko Derioko Agiritegia. E.D.A.
- Bizkaiko Foru Agiritegia. B.F.A.
- Durangoko Jabetza-Erregistroko Agiritegia
- “Alkartu” Gastronomía-Elkarteko Agiritegia

Argazkiak: 0. AZALA. Altzerreka jauregiaren armarria.

Argazki-oinak.

1. Altzerreka etxearen argazki panoramikoak (eskuman, lehena), Miota auzoan.
3. Altzerreka etxearen aurrealdea, Miotan.
5. Altzerreka jauregiaren atzealdea.
7. Altzerreka jauregiaren ganbararen xehetasuna (azken pisuan).
9. Altzerreka jauregiaren solairu nagusiko jantokia.
11. Altzerreka jauregiaren behe-solairuko sukaldea.

DE PALACIO “ALZERREKA” A SOCIEDAD CULTURAL
GASTRONÓMICA Y RECREATIVA “ALKARTU”
(siglo XVII - hoy día)



IGOR BASTERRETxea KEREXETA

Portada: Escudo del palacio Alzerreka.

C Igor Basterretxea Kerexeta.

Fotos: Eneko Gallastegi.

Depósito Legal:

A todos los socios, en especial
a Carlos Palacios.

ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN.

1.1. Elorrio a finales del siglo XVII: un mundo de mercaderes.

2. LA FAMILIA ALZERREKA Y LA CONSTRUCCIÓN DEL PALACIO.

2.1. Unos hijosdalgo de Miota.

2.2. Elorrio se ensancha: arrabal de Suso.

2.3. Joseph de Alzerreka y sus sobrinos.

3. EL TIEMPO INTERMEDIO.

3.1. Un siglo oscuro. Balnearios y turismo.

3.2. Los Ariño y la Guerra Civil.

4. LA SOCIEDAD “ALKARTU”.

4.1. Constitución de la sociedad y adquisición del edificio.

4.2. Últimas reformas.

5. FUENTES BIBLIOGRÁFICAS Y DOCUMENTALES.

1. INTRODUCCIÓN

La función de este pequeño trabajo no es otro que dar a conocer, muy a “grosso modo”, la historia del palacio Alzerreka, edificio construido por la familia del mismo nombre a finales del siglo XVII y en el que actualmente se encuentra ubicada la Sociedad Cultural Gastronómico Recreativa “Alkartu”. Hoy día en Elorrio, junto a ésta existen, además, otras cuatro sociedades de similares características: “Pitxar”, “Lagun-Toki” y “Buzkantz”, en el núcleo urbano; y “Lagun- Arte”¹, en el barrio de Gazeta.

1.1. Elorrio a finales del siglo XVII: un mundo de mercaderes

El palacio Alzerreka es uno más de una veintena, aproximadamente, existentes en la villa, algunos de finales del XVI y otros de principios del XVIII, pero la gran mayoría del siglo XVII, y más concretamente de su segunda mitad (momento de máximo esplendor económico en toda la historia de Elorrio). Palacios que no son, sino el legado de una sociedad dedicada al comercio, compuesta por hombres emprendedores que supieron aprovecharse maravillosamente de ciertos factores como la situación geográfica privilegiada de la que dispone Elorrio; el comercio del hierro, en ese momento en pleno auge, entre Sevilla y América; y las ventajas obtenidas del hecho que suponía ser hijodalgo² de nacimiento.

